

ARTISAU- GARAGARDOAREN EGOERA EUSKADIN

2020



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



AURKEZPENA

2020. urtean dena aldatu zen, eta, zalantzarik gabe, denbora joanagatik ere ez dugu ahaztuko. Gure eguneroko bizitzako aldaketa sakonek artisau-garagardoan ere eragin handia izan dute.

EGEk (Euskal Garagardo Elkarte – Basque Beer) hirugarren urtez sustatu du “Euskadiko artisau-garagardoaren egoera 2020an” gaiari buruzko txosten teknikoa, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzaren laguntzarekin eta Barcelona Beer Festival jaialdiko taldeak zuzenduta. Orain arte egindako gauzarik garrantzitsuena delako uste osoa dute inplikaturako alderdi guztiek. Garagardogileei buruzko datuak bildu dira, eta pandemiak ekoizpenean, negozioaren bolumenean eta enpleguaren sorreran duen eragina neurtu da. Aldi berean, kalitatearen eta gertutasunaren defentsatik bide handia zeraman sektore berri baten etorkizuneko joerak markatu ditu.

KALITATEAREN ETA HURBILTASUNAREN DEFENTSATIK BIDE LUZEA EGINA DUEN ETA GARAPEN BIDEAN DAGOEN SEKTORE BERRI BATEN ETORKIZUNEKO JOERAK MARKATZEA

Hainbesteko oinaze eta galera eragin dituen osasun-egoera sakon eta larriari jarduera ekonomikoak ere ondorio larriak jasan dituela gehitu behar zaio. Txosten horrek hainbat adierazlerekin banatzen du eragindako kaltea. Hori bai, ez dugu ahaztu behar sektorearen adierazle orokorrek ezin dutela inoiz lantegi bakoitzaren xehetasuna azaldu.

Bi garagardo-proiektu itxi zituzten 2020an, eta beste bi 2021ean. Egoera horrek asko tristatzen gaitu, herrialde osoan zehar fabrikak dituen sektore zabal batek berezko dituen aniztasuna eta aberastasuna galtzen direlako.

2020. urtea txarra izan den adierazgarri dira produkzio orokorraren %6ko beherakada edo 20 lanpostu galtzea (espero dezagunaldi baterako baino ez izatea). Azken urteotan %20tik gorako hazkunde handia izan duen sektore bat geldiarazi du. Bestalde, zenbait adierazle erresistentzia-gaitasunari buruz hitz egiten dute, eta zenbait zeinu eta joera positibo erakusten dizkigute, hala nola esportazioen hazkundera, on line salmenta edo merkatu-kuotaren %2,5eko igoera txikia, pandemiak gehienbat garagardo industrialaren kontsumoa murriztu baitu.

Urte hau irudikatzeko hitz aproposik baldin badago, hori ERRESISTENTZIA da. Egoera gogor horri eutsi, ahaleginak bikoiztu eta aurrera egiteko lana. Eta hori energiarekin eta talde-lanarekin egin ahal izango dugu bakarrik. Tokiko produktuari laguntzeko asmoz abian jarritako On Egin kanpaina edo iristear dauden ekintza berriak funtsezkoak dira lekuko gastronomia bezalako herrialdeko sektore egituratzaile bat berreskuratu eta garatzeko.


Txosten tekniko hau irakurtzera gonbidatzen zaituztegu, parte hartzen duten pertsona guztien ahalegina eta gure garagardoa ekoiztu, sustatu, saldu, gozatu eta handitzera zuzendutako denbora, esfortzua eta grina ikusita!

Jabier Ortega

Euskal Garagardo
Elkarteko lehendakaria



PARTE HARTU DUTEN GARAGARDOGILEAK



1  **Olañeta**
Errenteria - Gipuzkoa

4  **Bidassoa**
Irun - Gipuzkoa

7  **Pagoa**
Oiartzun- Gipuzkoa

10  **Byra**
Iruña Oka - Araba

13  **Boga**
Mungia - Bizkaia

16  **Gross**
Donostia - Gipuzkoa

19  **La Salve**
Bilbo - Bizkaia

2  **Lau Gar**
Gordexola - Bizkaia

5  **Etxeandia**
Urduliz - Bizkaia

8  **Tito Blas**
Gorliz - Bizkaia

11  **Urban Beer**
Zamudio - Bizkaia

14  **Basqueland**
Hernani - Gipuzkoa

17  **Maiken**
Balmaseda - Bizkaia

20  **Basabe**
Legorreta - Gipuzkoa

3  **Baías**
Urkabustaiz - Araba

6  **Zarautz**
Zarautz - Gipuzkoa

9  **Gar & Gar**
Donostia - Gipuzkoa

12  **Mala Gissona**
Oiartzun- Gipuzkoa

15  **Txorierri**
Sondika - Bizkaia

18  **Basquery**
Bilbo - Bizkaia

21  **Baga Biga**
Donostia- Gipuzkoa

FABRIKEN SORKUNTZA

Euskadi 2020rako Artisau-Garagardoaren Txosten Tekniko honen oinarria RGSEAAren erregistroa da, bai eta establezimendu berean garagardoa saltzen duten eta azken kontsumitzailearentzat gehien ekoizten duten txikizkako establezimenduak (brewpubs) ere.

Durante este 2020, debido a la grave crisis sanitaria, hemos vivido varios cambios en referencia a los proyectos empresariales: cerrábamos el estudio 2019 con 23 proyectos activos y desgraciadamente han ocurrido varios cambios en el sector: quedando en 2020, 21 proyectos activos, luchando, resistiendo e intentado mantenerse a flote durante estos duros meses de poca actividad económica y con fuertes restricciones que han perjudicado al sector.

Osasun-krisi larria dela eta, hainbat aldaketa izan ditugu enpresa-proiektuetan 2020. urtean zehar: 2019 azterketa 23 proiektu aktiborekin itxi genuen, eta, zoritxarrez, hainbat aldaketa izan


dira sektorean: 2020an, 21 proiektu aktibo geratu dira, jarduera ekonomiko gutxi eta sektoreari kalte handiak egin dizkioten murrizketa handiak izan dituzten hilabete gogor horietan bizirauteko gogor borrokatzen.

Aurreko orrialdeko mapak 2020an lantegiak nola sakabanatu ziren erakusten digu: Arabako probintzian 2 proiektu aurkitzen ditugu, 9 Bizkaian eta 10 Gipuzkoan.

Txosten teknikoa on line inkesta bidez egin da © 2021 Survio software espezializatuarekin.

Datuekin hasteko, hona hemen zenbait urtetan garagardogileek izan duten hazkundearen bilakaera islatzen duen grafikoa: 2014. urtean izan zuen gorengo unea, 7 proiektu berri sortu baitziren, eta proiektu horiek urtez urte hazten joan dira 2020. urtera arte. Orduetik hona, goranzko kurbak atzera egin du, eta 21 fabrika gelditu dira jardunean.

FABRIKEN SORKUNTZA




EKOIZPENA

Aurreko orrialdeetan aipatu bezala, 2020an atzerakada izan du sektorean gertatzen ari zen hazkundea, eta 2019an aurreko urteetako goranzko bideari eutsi zitzaion: 2018arekiko %19 handitu zen, 1.493.148 litro ekoiztu baitziren. 2020an, produkzioa 1.398.207 litrotan gelditu zen, oraindik milioi bat litroko zifra gaindituz. Egoera kontuan hartuta eta sektoreak orokorrean jasan duen beherakadarekin alderatuta, kopurua positibotzat jo dezakegu. Euskadiko garagardoaren sektorea %6 jaitsi da, 2019ko datuekin konparatuta. Ikus dezagun azken urteetako bilakaera grafiko honetan:

Gutzizko litro-kopuru honek garagardogile mota desberdinekin eta haien proiektuarekin zerikusia

EKOIZTUTAKO LITROAK GUZTIRA



dauka: beste adierazle batzuk hartu behar ditugu kontuan multzoa baloratzeko, hala nola negozio-bolumena edo langile-kopurua. 2020an, garagardo txikien (100.000 litro urteko baino gehiago) eta Nanoen (24.000 litro urteko baino gutxiago) eta mikroen (24.000 eta 100.000 litro urteko bitartean) arteko aldea ikusten dugu. Garagardogile txikiek (multzoaren %20) ekoizpen osoaren erdia baino gehiago produzitzen dute. Bestalde, datuak ez dira hain positiboak multzoaren %80 osatzen duten eta borrokan dirauten mikro- eta nano garagardogileentzat. Hauen proiektuak, zaharbertzearekin lotuta dagoenez, produkzioan ondorioak jasan ditu maiz. Hurrengo grafikoan argi ikusten da diferentzia hori.

NANO GARAGARDOGILEAK

24.000 LITRO BAINO GUTXIAGO



%35
SAGARDOGILE

%7
PRODUKZIOA GUZTIRA

MIKRO GARAGARDOGILEAK

24.000 ETA 100.000 ARTEAN



%45
SAGARDOGILE

%35
PRODUKZIOA GUZTIRA

GARAGARDOGILE TXIKIAK

100.000 LITRO BAINO GEHIAGO




%20
SAGARDOGILE

%59
PRODUKZIOA GUZTIRA

EKOIZPENA

Garagardogile moten arabera aztertuz gero, garagardogile txikienek COVIDak eragindako krisia gogorrago jasan dutela ondorioztatu dezakegu. Batzuk %50erarteko murrizketa jasan dute, ostalaritzarekiko mendekotasun handia dutelako eta aurrez hain landutako salmenta-kanal alternatiborik ez dutelako. On line kanalak, banaketa handiko salmentak edo esportazioak zituzten garagardogileek aldiz, pandemia horrek eragin duen kolpe handia minimizatu ahal izan dute.


FABRIKEN BATEZ BESTEKO PRODUKZIOAREN BILAKAERA



MERKATU- KUOTA

Harrigarria da datua 2020ko merkatu-kuota (% 2,5) eta ekoizpen-kuota (% 1,1) aztertzen ditugunean. Datu hauek 2019koak baino zertxobait hobeak dira, orduan merkatu- eta ekoizpen-kuotak % 2,4 eta % 1,1ean baitzeuden hurrenez hurren. Hau 2020ko sektorearen datu orokorreari lotuta ulertzen da: Euskadiko artisaugaragardoaren ekoizpena %6 jaitsi da 2019koarekin alderatuta, eta Euskadiko garagardoaren produkzio globala %9 txikiagoa izan da. Beraz, artisauaren kuotak zertxobait igo dira garagardo-multzo osoarekin alderatuta. guztiarekiko.

Oharra: Merkatu-kuotaren kontzeptua sektoreko salmenta guztiekiko salmenta-portzentajearen datua. Beraz, unitateko prezioak garrantzia du kalkuluan. Artisaugaragardo-litro berberak garagardo industrialak baino negozio-bolumen handiagoa sortzen dute, eta unitate-kostua txikiagoa da.



EKOIZPEN-
KUOTA **%1,1**



MERKATU-
KUOTA **%2,5**

GARAGARDOA

Sektoreak sortzen eta produktuen aniztasuna erakusten jarraitzen duela erakutsi du 2020. urteak, garagardo moten kopuruak behera egin badu ere. 340 garagardo ekoitzi ziren, eta 2019an berriz, 352. %3,4ko jaitsiera koherentea da kontuan hartzen badugu ekoizpen orokorrak ere %6 egin duela behera. Garagardo-aniztasun handia balioesteko, beti hartu behar dira kontuan sortzen diren bi tipologiak: batetik, gama finkoko garagardoak, urtean zehar ekoizpen iraunkorra dutenak, eta, bestetik, egoera edo denboraldi berezi baten ondotik stock jakin baten sortzen den gama berezia, normalean berritzen ez dena.

2020AN EKOIZTU DIRA

340

**GARAGARDO MOTA
DESBERDIN GAMA
FINKOAREN ETA EDIZIO
BEREZIEN ARTEAN**



Garagardoaren ekoizpenean, lurraldearekiko loturak bizirik darrai, eta garagardogileen %50ak tokiko lehengaiak erabiltzen ditu, eta lekuko maltaren (%6 igo da) eta tokiko lupuluaren (%20 igo da) erabilerak gora egiten jarraitzen du.



Banakako ontziratzea eta upelean ontziratzea aurrez aurre jartzen baditugu, upelaren batez bestekoa ekoizpen osoaren %26 dela ikusiko dugu. Kopuruak aldatu egin dira 2019. urtearekin alderatuta, pandemiak kontsumo-ohiturak aldatu dituelako, hala nola tabernak ixtea, banakako kontsumoa, ospakizunak bertan behera uztea... Hori dela eta, gutxiago erabili zen upelean ontziratzea, eta banakako ontziratzea ere igo egin da, potoan ontziratzeak goranzko bidea jarraitzen baitu, eta inkestaturakoen %58k ontziratze-prozesu hori erabiltzen du. Ikus dezagun grafikoa xehetasunekin hasi aurretik.

UPELAREN ETA POTOAREN ERABILERA ONTZIRATZEAN

DENA UPELA

%0

%50 BAINO GEHIAGO


%8

ERTAINA 50-50

%8

%50 BAINO GUTXIAGO

%84



DENA POTOA

%0

%50 BAINO GEHIAGO

%14

ERTAINA 50-50

%0

%50 BAINO GUTXIAGO

%86

SALMENTAK ETA BANAKETA

Esportazioak %4 hazi dira 2019. urtearekin alderatuta, eta tokiko kontsumoa (Euskadin) %1 jaitsi da, aurrerago aipatu ditugun osasun-krisiaren eta kontsumitzailearen ohitura-aldaketen ondorioz. Hala, esan dezakegu esportazioaren gorakadak kolpe gogor horri

eusten eta moteltzen lagundu duela, eta tokiko kontsumoaren beherakada orekatu duela.

Grafiko honetan, inkestatutako garagardogileen salmenta (zuzenekoa edo zeharkakoa) eta banaketa mota desberdinak azter ditzakegu:



%50

BITARTEKOENTZAKO
PRESTAKETA



%61

SALMENTA
EUSKADI



%18

ESPORTAZIOA



%91

LOKAL ESPEZIALIZATUETAN
SALTZEN DUTEN FABRIKAK




%67

AZALERA HANDIETAN
SALTZEN DUTEN FABRIKAK

Aurreko datuen arabera, esportazioak garrantzi handia hartu duela baieztatu dezakegu. Inkestatuen %70ak hainbat herrialdetara esportatzen du, Frantzia, Erresuma Batua, Herbehereak eta Italiara, besteak beste.

Orain, enpresa bakoitzak produkzio osoan, saltoki handietan eta lokal espezializatueta n egiten duen lana konparatuko dugu.


AZALERA HANDIAK



**%20
BAINO GUTXIAGO**

**%40 ETA
%20 ARTEAN**

LOKAL ESPEZIALIZATUAK



**%50 ETA
%40 ARTEAN**

**%50 BAINO
GEHIAGO**

ENPLEGUA

2019an nabarmen ugaitu ziren lanpostuak, eta 112 lanpostu sortu ziren negozio-eredu berriak abian jartzeagatik, hala nola Tap-room-ak eta dastatze-guneak. Zoritxarrez, 2020an denbora asko egon dira itxita.

Urte horretan sektoreak 92 langile zituen; beraz, 2019an sortutako lanpostuen %18 galdu dira. Enpleguaren sorrerari dagokionez bada ohar positibo bat: emakumeen kuotak goranzko joera izan du, aurreko urtearekin alderatuta %10 hobetu baita.

SEKTOREKAKO DEDIKAZIOA



EKOIZPENA, GARAGARDOGINTZAKO MAISUA

- PROFILA: 30 ETA 40 BITARTEKO GIZONA
- 55% BERARIAZKO PRESTAKUNTZAREKIN ETA GEHIENAK UNIBERTSITATEKO EDO GRADUATU ONDOKO IKASKETEKIN
- % 72KO DEDIKAZIOA LANALDI PARTZIALEAN
- BATEZ BESTEKO SOLDATA: 20 K€ ETA 30 K€ ARTEAN



MERKATARITZABURUA

- PROFILA: 40 URTETIK GORAKO GIZONA
- BERARIAZKO PRESTAKUNTZARIK GABE, ETA GEHIENAK UNIBERTSITATEKO EDO GRADUATU ONDOKO IKASKETEKIN.
- % 57KO DEDIKAZIOA LANALDI OSOAN
- BATEZ BESTEKO SOLDATA: 20 K€ ETA 30 K€ ARTEAN




KUDEATZAILE NAGUSIA

- PROFILA: 40 URTETIK GORAKO GIZONA
- %60 BERARIAZKO PRESTAKUNTZAREKIN ETA GEHIENAK UNIBERTSITATEKO EDO GRADUATU ONDOKO IKASKETEKIN
- %78KO DEDIKAZIOA LANALDI PARTZIALEAN
- BATEZ BESTEKO SOLDATA: 20K€ ETA 30K€ ARTEAN

KOMUNIKAZIOA ETA TURISMOA

Turismoaren sektoreko dinamika-aldaketak eta sare sozialek hartu duten garrantziak eragin handia izan dute 2020an: berrasmatu egin gara, hurbileko turismoa egin dugu eta inoiz baino gehiago erosi dugu online. Euskadiko artisau-garagardoa ez da egoera horretatik at egon, eta grafiko hauetan ikusten ditugu pandemiak eragindako aldaketak, bilakaerak eta egokitzapenak.



2019 azterlanaren aurrerapen txikian, non COVID txostena egin baitzen, orain argi ikusten duguna aurreratu genuen: sare sozialak eta marka-irudia birtualki eguneratuta edukitzea funtsezkoa da borrokan jarraitzeko eta azken bezeroarekin zuzenean harremanetan jartzeko.

Datu hauek berresten dute garagardotegiak askoz gehiago sartu direla sare sozialetan eta online salmentan, komunikazio-kanal berri bat aurkitu ahal izateko. Ikus dezagun, orain, nola antolatzen den, oro har, profil birtuala:


IKUS DEZAGUN, ORAIN, NOLA ANTOLATZEN DEN, ORO HAR, PROFIL BIRTUALA:



%91
WEB
PROPIOA



%100
MARKAREN
AURKEZPENA




%55
JARDUEREN
DESKRIBAPENA



%90
ON LINE SALMENTA
DAUKATE

Bestalde, garagardo-turismoa ez da krisi orokorretik, muga itxietatik, mugikortasuna murriztetik, ordutegi-murrizketetatik eta abarretatik kanpo egon. Hori dela eta, nabarmen jaitsi da azken urteotako goranzko joera. 2019an, enpresen %85ak egiten zuen turismoarekin lotutako jardueraren bat; aurten, erdia baino

gehixeago soilik aritu da horretan, eta bisitarien kopuruak behera egin du nabarmen. Ez dira 1,600 bisitari baino gehiago izan; 2019an, berriz, 9,000. Beraz, kontuan izan hurrengo infografiako zenbakiak urte bakoitzeko zenbakietara egokituta daudela.




COVID TXOSTENA

Mundu mailako osasun-krisialdi gogorak birplanteatu, aurre egin eta berpizten saiatzera eramán gaitu, egoera gorabehera. Krisi honek Euskadiko Artisanu-Garagardoaren sektoreari nola eragin dion aztertu dugu aurreko orrialdeetan. Laburbilduz, aurreko urteetan gora egin zuen kopuruak behera egin arren, sektoreak eutsi egin dio egoerari eta sektore orokorreko batez bestekoak gáinditu ditu, Euskadiko agintariek emandako laguntzei esker: tokiko produktuen kontsumitzailea saritu eta Euskadiko enpresak sustapenera bultzatu dituzten sektoreen arteko sustapen- eta lankidetzak. Krisiak Euskadiko garagardoan izan duen eraginari

buruzko laburpen bat bidaltzen dizuegu, eta 2019 azterketa deskarga dezakezue, COVID txostena barne.

2019AN OINARRITUTAKO EKOIZPENA %94KOA IZAN DA

Ikus dezagun zehatzago nola eragin duen krisiak sektoreka:



EGEk (Euskal Garagardo Elkarteak – Basque Beer) hirugarren urtez sustatu du herrialde osoan zehar hedatuta eta garapen bidean dagoen sektore berri baten argazkirik fidagarriena eskaintzen duen “Euskadiko Artisau-Garagardoaren Egoera 2020. urtean” gaiari buruzko Txosten Teknikoa.

Hori egiteko, Euskadin garagardoa egiten duten lantegi gehienek hartu dute parte, eta, hala, errealitatetik oso hurbil dauden emaitzak lortu dituzte hainbat arlotan: ekoizpena, tokiko lehengaiak, salmentak, enplegua sortzea, banaketa edo etorkizuneko ikuspegia.

Txosten horrek hainbat adierazleren bidez zehazten du 2020ko osasun-egoera sakon eta larriak eragindako kaltea, eta, aldi berean, Euskadiko artisau-garagardoaren egoera bertatik bertara ezagutu, eta, batez ere, urte gogor hori gaingaitzeko bideak egitea ahalbidetzen du.



www.basquebeer.eu

ege@basquebeer.eu

Beer Events SL enpresak egin du txosten tekniko hau, **Barcelona Beer Festival** jaialdiaren antolatzaileak.

